



KOSTUAK

Taulan, gure enpresan produzitzeko behar ditugun elementuen gastu guztiak agertzen dira. Kostu aldakorrak eta kostu finkoak zeintzuk diren azaltzen dira.

Alde batetik, hauek dira gure kostu finkoak: hilabetero ordaintzen dugun lokalaren alokairua, tabernako materiala, karaokerako behar dugun materiala, siesta egiteko behar dugun materiala, seguroa, alarma, elektrizitatea eta ura.

Beste aldetik, hauek dira gure kostu aldakorrak: janaria eta edaria.

Etorkizunean dena ondo joaten bada, janari eta edari kantitate gehiago erosi beharko genuke, Andoainen hainbat festa egoten direlako eta normalean jendeak kanpoan bazkaltzen eta afaltzen duelako.

Printzipioz, lau bazkide gara. Hasiera batean, 3 pertsona sukaldatzen egongo gara eta pertsona bat zerbitzaria izango da, hasieran jende asko etorriko delako. Bakoitzak 14 ordu egingo ditu lan, 4 pertsona garenez dena denon artean egin beharko dugu ez dugulako inor gehiago kontratatuko. Jende gehiago kontratatzeak, gastu gehiago edukitzea suposatuko luke. Aurrerago, gastu gutxiago edukitzen ditugunean, jendea kontratatzen hasiko gara. A proposena, 4 sukaldari eta 3 zerbitzari egotea izango litzateke.

Lehenengo, gastu gutxiago edukitzeko, tabernako lokala bakarrik alokatuko dugu eta etorkizun batean irabaziak edukitzen ditugunean, siesta egiteko lokala alokatuko dugu.